

RODOLFO BOZAS-URRUTIA (1913-1978)

EUSKERA-ren **Aurkibide-Index** (1920-1979) egiterakoan ohartu nintzen Rodolfo Bozas-Urrutia zenaren hilberria eman gabe gelditu zela. Euskal idazle, euskaltzain urgazle eta Madrid-eko Ateneo-an euskararen irakasle zena rentzat hutsune nabarmena iduritzen zaigu haren *curriculum* edo bizitza ta lanen zertzeladak aipamen gabe uztea. Honegatik, berandu bada ere, lerro batzu eskaini nahi dizkiogu, adinean sarturik euskaldundu eta denbora laburrean hainbeste lan egin zuen idazlearen oroitzapena izan dezagun.

Egia esan, Madrid-eko Ateneo hartan euskal katedra ideki zenean, ekin-tza hura zertan zen eta Rodolfo beraren bizitza ta lanei buruzko berriak ere eman genituen (ikus, *Euskera*, XX, 1975, 515-528 orr.); baina ondoko hiru urteetan ere bizkor ari zen euskarazko eta euskal kulturazko lanetan, eta min-biziak joa zenez, azken hilabeteetan ere jo ta ke ziharduen lehendik eskuar-tean zituen lanak bukatzen eta utzi zigun bibliografiaren berri ematea merezi du.

* * *

R. Bozas-Urrutia zenaren dolua ahaztu ezina zen eta haren garaian Donostiako asterokoan eskaini nion artikulua bat, gero *Bidez* (1981) deritzan liburuaren 391-395 orrialdeetan jaso datorrena, baina EUSKERA-n ere ondo merezia zuenez, hara hemen hor oinarritutako zenbait berri.

Rodolfo, Donostian sortu zen 1931.eko Azaroaren 19an. Beraren aita, Evaristo Bozas Urrutia, Donostiako "El Pais Vasco"ren sortzaileetakoa eta zuzendari izana zen. Astigarragan igaro zituen beraren haurtzaroko urteak, baina gaztetxo joan zen Uruguay-ra eta han galdu zuen euskara. Gero, Espainiako gerrate garaian, Kataluniara etorri eta gerraondoan euskaldun estudianteeekin Barcelonan izan zituen harremanetatik sortu zitzaion berriz euskara ikasteko gogoak. Ikasi ez ezik euskal idazle ere bihurtu zen eta horrez gainera ikerketetarako dohai bereziak erakutsi ere bai. Horregatik, 1971eko Urtarrilaren 29an, Aingeru Irigaray euskaltzain jaunaren eskariz, Euskal-tzaindiko urgazle izendatu zen.

* * *

Bai euskaraz eta bai gazteleraz, euskal kultur aldizkaririk gehienetan kolaboratu zuen. Bereziki, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los*

Amigos del País, Egan eta EUSKERA bertan. Baina, horrez gainera beste zenbait aldizkari eta bildumatan; hara nola, *Vida Vasca, Vol. Homenaje a Joaquín Mendizábal, Hegatsez* eta abar.

Beraren nortasunik handiena musikari, historiagile eta Natur zientzietan erakutsi zigun. Inoiz, "Errolba Oraune" izenordea erabili zuen.

J. B. Daskonagerreren *Atheka gaitzeko oihartzunak* eleberriaren argitalpena prestatu zuen 1970ean, hitzaurrez, erdal itzulpenez eta oharrez. 1974ean ordea, *Euskal Kirolak* zeritzan lan eder bat argitaratu zuen, *Lur eta gizon. Euskal Herria* bilduman, eta urte berean, *Francisco Amoros y el antiguo juego de pelota*, R.S.V.A.P.-ko boletinean, zatika. Gero, 1976an, beraren aita zenaren *Andanzas y mudanzas de mi pueblo* (Errenleriako historia), *Nere herriaren ibillaldiak eta gora-beherak* zeritzan itzulpenez eta oharrez aberasturik. Urte berean, Luis Bombin-en laguntzaz, *El Gran Libro de la Pelota*, bi tomo handitan. Eta, Rodolfo Bozas-Urrutia zenari esker, bada bertan gure literaturaren ageri ederrik ere, pilotari buruz euskaraz idatzi dena jasoaz.

Azken urteetan, Madrid-eko Santa Maria de la Cabeza deritzan parrokiako organista zen eta, esan bezala, Ateneo-ko "Aula Vasca"-ren zuzendari. Madrid-en bertan hil zen 1978.eko Urtarrilaren 12an. Bego gurekin hura eta beraren lanen oroitzua.

J. S. M.